DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

GOGORA

- Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2
- Memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzea..... 4
- Memoria Demokratikoa berreskuratzeko dokumentalak sortzea 5

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 29koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez 2025. urterako dirulaguntzen deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa eta demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025003768

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-deialdia 112.500,00 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldian memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratzeko, ikertzeko eta zabaltzeko proiektuak diruz laguntzeko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen eta Fundazioen Erregistroan inskribatuta dauden eta estatutuetan memoria historikoa berreskuratzea helburu duten elkarte eta fundazioek jaso ditzakete laguntzak.

Zehazki, laguntzak honako hauek sustatzera bideratu dira:

- Gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioarekin, erbesteratzearekin eta balio demokratikoen errealitatearekin eta egoerarekin lotutako gertaerak eta prozesuak berreraikitzeko ikerketa-jarduerak.

- Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoaren eraikuntzarekin zerikusia duten pertsonak eta gertaerak oroitzeko edo omentzeko jarduerak.

- Elkarteek eta/edo fundazioek antolatzen dituzten zabalkunde-jarduerak: jardunaldiak, mintegiak, aldi baterako erakusketak, liburuxkak…

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

23 proiektu aurkeztu dira, eta horietako hiruk prozeduran atzera egin dute.

4 proiektu baztertu dira, beraz, 16 proiektu lagunduko dira diruz

Balorazio-irizpideetan, genero-ikuspegia duten giza eskubideen urraketak hartu dira kontuan, eta arreta berezia jarri zaie frankismoaren garaian emakumeek jasandako urraketa-motei eta sexu- eta genero-aniztasunari; zehazki, errepresioari eta ekintza kolektiboari.

16 proiektu lagundu dira diruz, lekukotasunen 1, zabalkunderako 14 eta oroitzapenezko edo omenezko 1. Aurrekontuan jasota zeuden 112.500 eurotatik 67.552,30 euro exekutatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	23	16
Zenbatekoa	112.500	67.552,30

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzea

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 29koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena 2025. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025003766

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da Euskadiko memoria demokratikoa Gerra Zibiletik gaur egunera arte berreskuratzeko asmoa duten argitaratu gabeko ez-fikziozko liburuak editatzeko dirulaguntzak deitzea 2025. urterako. Sortze-prozesuan ezin izango da erabili adimen artifizialeko softwarerik. Dirulaguntza jaso ahal izateko, liburuek edizioaren eta/edo maketazioaren azken fasean egon beharko dute, eta, betiere, 2025eko abenduaren 31n egon beharko dute amaituta. Liburuek memoria historikoa edo memoria hurbileko berreskuratzearekin eta egia argitzearekin lotutako gaiak jorratu behar dituzte, giza eskubideen defentsaren eta eskubideon urraketen salaketaren ikuspegitik. Gainera, jarduerak EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean edo bietan egin beharko dira. Deialdi honek 40.000 euro ditu eta proiektu bakoitzak 5.000 euro.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

8 liburu aurkeztu dira, eta horietatik hiru baztertu egin dira deialdian ezarritakoa ez betetzeagatik eta bat gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

Beraz, 4 liburuk jaso dute diru-laguntza. Aurrekontuan jasotako 40.000 euroetatik 13.284,02 euro gauzatu dira.

Balorazio-irizpideetan kontuan hartu dira, besteak beste, proiektuaren potentzial estrategikoa, aukera edo interes soziala eta proiektuan genero-ikuspegia sartzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	8	4
Zenbatekoa	40.000 €	13.284,02 €

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria Demokratikoa berreskuratzeko dokumentalak sortzea

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 29koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko dokumentalak sortzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena 2025. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025003767

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da dirulaguntzetarako deialdia egitea 2025. urterako, EAEko Gerra Zibiletik gaur egunera arteko memoria demokratikoa berreskuratzeko asmoa duten zinemarako, telebistarako edo plataforma digitaletarako dokumentalak sortzeko. Dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduketen muntaketek eta/edo postprodukzioek azken fasean egon behar dute, eta, betiere, 2025eko abenduaren 31rako amaituta. Dokumentalek memoria historikoa edo memoria hurbileko berreskuratzearekin eta egia argitzearekin lotutako gaiak jorratu behar dituzte, giza eskubideen defentsaren eta eskubideon urraketen salaketaren ikuspegitik. Gainera, jarduerak EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean edo bietan egin beharko dira. Deialdi honek 80.000 euro ditu eta proiektu bakoitzak 15.000 euroko laguntza izango du gehienez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

10 dokumental aurkeztu dira, hiruk prozeduran atzera egin dute, bat epez kanpo aurkeztu da, batek ez du deialdian ezarritakoa betetzen eta beste batek ez du beharrezko gutxieneko puntuazioa lortu.
Beraz, 4 dokumentalek jaso dute diru-laguntza. 80.000 euroko aurrekontutik 44.914,20 euro exekutatu dira.
Izan dezakeen eragin sozialari dagokionez, proiektuan genero ikuspegia sartzea baloratu da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diru-laguntzen kopurua	10	4
Zenbatekoa	80.000 €	44.914,20 €